

## DIRU-ITURRIAK

Gure diru iturri nagusia aktiboen salmentetatik (eskaintzen ditugun zerbitzu ezberdinetatik) lorturikoa izango da. Zerbitzuen prezioa finkoa izango da baina dendan saltzen diren produktuen eta janarien prezioa jasotako uztaren arabera izango da:

- Udalekuen prezioa: egunkako zerbitzua eskeiniko da. Baita aste edo hilabete osokoa ere. Zenbat eta egun gehiago hartu, eguna merkeago aterako da.



- Dendan saldutako barazkien prezioa: urtaroaren arabera aldatuko dira prezioak, jasotako uztaren arabera; betiere gutxieneko prezioa bat izanda.
- Jatetxe zerbitzuaren prezioa: sasoiko elikagaien arabera egingo dira menuak eta horren arabera, prezioak finkatuko dira.
- Autokarabana Parking-aren prezioa: urte-sasoia eta egonaldi epearen arabera.
- Tailerren prezioa: Kuota finko bat egongo da bezero leialentzat, hala ere, tailer espezifiko batera joan nahi bada, soilik tailer horren prezioa ordaindu beharko da.